# Literatura

## Relatos de una ciudad que se convirtió en ave fénix tras 1813

**Se cumplen 200 años del gran incendio que destruyó la vieja ciudad de Donostia. El historiados José Antonio Azpiazu prefiere destacar la fuerza de los donostiarras y rememorar el aniversario de aquellos que decidieron retormar su vida a partir de las cenizas.**

Nagore BELASTEGI | **DONOSTIA**

31 de febrero de 1813. Las tropas angloportugesas atacan Donostia y la queman para asegurarse su completa destrucción. Pero los donostiarras no se resignaron y, a los pocos días del desastre, decidieron que la ciudad debía ser reconstruida, que debían mantener su personalidad y sus costumbres. Y así, el pueblo donostiarra «resurgió de sus cenizas como un ave fénix» y comenzó a crear las raíces de la Donostia moderna.




**Azpiazu sostiene su libro en la Parte Vieja donostiarra.** Gorka RUBIO | A.PRESS

"1813. Crónicas donostiarras" (Ttarttalo, 2013), del historiador y antropólogo José Antonio Azpiazu nos cuenta, no solo cómo fueron esos acontecimientos, sino también cómo era Donostia antes y después de 1813. Dos años investigando documentos que, hasta la fecha, habían sido ignorados, creyendo que habían desaparecido en accidentes, para escribir un libro que llega oportunamente para el bicentenario del gran incendio.

En su búsqueda, se topó con una serie de relatos que le parecieron más interesantes que el propio ataque, y que dan conocimiento de primera mano de lo que sucedió, haciendo protagonistas a los ciudadanos. Donostia era una ciudad ocupada, casi con permiso, por las tropas napoleónicas. Los franceses eran los enemigos de los ingleses, que aprovecharon esta ocupación para destruir la ciudad, y, de paso, la vida de esos donostiarras que tantos intereses tenían en el mar. «Tenían barcos ricos, eran mercaderes hábiles y los ingleses no querían unos enemigos así en el mar. Entonces vieron la oportunidad para quitarse una competencia del medio», comentó Azpiazu.

Hasta que Donostia volvió a ser una ciudad liberada pasó mucho tiempo en el cual sus habitantes pasaron penurias cobijdos en barracas de madera. A la pérdida de posesiones se añadieron las enfermedades, momento cuando las mujeres tomaron especial protagonismo. «La historia de Euskal Herria no está completamente escrita, y mucho menos la de las mujeres. Me di cuenta de que apenas hay información sobre ellas, pero que cuando pasaba algo grave tomaban protagonismo –contó el historiador–. En 1813 pasó lo mismo; ellas tomaron el relevo en la construcción de la ciudad y, sobre todo, cuidando gente. Pasó una cosa curiosa, y es que las criadas se quedaron al cuidado de quienes fueron sus jefes (ahora desvalidos y sin pertenencias, algunos enfermos o tullidos) no como criadas, sino como ayudantes».

Entre las anécdotas que Azpiazu encontró entre los documentos y que ahora resume en su libro encontramos, como curiosidad, relatos de esclavitud. «En América sí que había esclavos, y los vascos que navegaban allí también los tenían. Para ellos entrar en esa dinámica de esclavitud era muy simple».

### MÁS HISTORIA

**Azpiazu ha escrito varios libros sobre la antigua sociedad vasca. Entre ellos se encuentran «Mercaderes guipuzcoanos» (1990), «Mujeres vascas: sumisión y poder»(1995), «Esclavos y traficantes» (1998) o «Historias de corsarios vascos» (2004).**

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

## Bizitzak bere magia

**MAITAGARRIA ETA DESIOA**
Mariasun Landa.
Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga.
Elkar, 2012.

Asun AGIRIANO




Mariasun Landaren liburuak euren artean desberdinak dira, bakoitzarekin bide berriak sortzen baititu; erronka dira irakurlearentzat, beti dakarkigute-eta zerbait berria.

Atsegin dut, idazle honek ez gaituelako sekula inozotzat hartzen, kontakizuna bi aldiz irakurtzeko gonbita egiten digu, begirada pausatzeko eskatu, eta bere nahia da liburuan planteatzen den gatazka ulertzen saia gaitezen.

"Maitagarria eta desioa"-ren hasierako eskaintza bereziak samur kokatzen gaitu testuinguruan, eta aurreratu narrazioren ildoa. Planteamenduan haur eta gazteen imaginarioan jarraitzen duten elementuak erabiltzen ditu –sorginak, nahiak–, eta fantasiazko osagarriak errealismoarekin batzen ditu. Kontakizunean sinbolismoaren pisua nabarmena da, irakurle batzuek esanahi sakonak aurkituko dituzten bitartean, «arriskutsua da desio dugun guztia berehala lortzea», beste batzuk, magia kontuak direlakoan, plazerez eta irribarretsu murgilduko dira istorioan.

Ahozko narrazioetatik gertu, idazleak maitagarrien ipuinak eta gaurko gizarteaen pasadizoak uztartzen ditu. Sorginen ohitura misteriotsuak jantokiko lanaren nekearekin, gertaera ezohikoak bizitzaren arazo eta zailtasunekin. Horrela, bada, gazteen kezkatik gertuago kokatzen da istorioa. Esaterako, neska protagonista, bere burua gobernatzeko gogoa izan arren, erabakiak hartzea zein zaila den konturatzen da, «lanbide bat aukeratu, independizatu eta bere bizitzaren jabe izateko aukera emango dion ogibideari ekin». Ezbai izeneko neskatilak, denboran zehar, ziurgabetasuna, amodioa eta heriotza zer diren ezagutuko du.

Denboraren kontzeptuak espazio berezia hartzen du kontakizun osoan. Maitagarriak egunero bisitatzen badu ere, Ezbaik estualdi larrienetan ere ez dio mesederik eskatuko. Soilik desiratzen du hurrengo egunean ere etor dakion; alegia, bizitzen jarraitu nahi du. Maitagarriak zahartzarora iristeko aukera ematen dio, denborarekin jolasteko. Fantasia-testuinguruan, baina errealitatean kokatua. Bitartean, irakurketak emozioak eragin eta erantzunik gabeko galderak sorrarazten dizkigu. Narrazio labur honetan testuak erritmo arina hartzen du, denbora markatzeko esaldia hainbestetan, hamahiru aldiz, errepikatu arren.

Argitaletxeak bildumatik kanpo dagoen liburua aurkezten digu edizio zainduan, azal gogorra eta letra-tipo ezberdinak dituela, batzuetan ondo irakurri ez eta nahasgarria den tipografia erabiltzen bada ere. Irudimen eta fantasiaren estetika bitxiaz esploratu du Maite Gurrutxagak marrazkiak egiteko gonbita; lengoaia propioaz ausartzen da, azalera handiko ilustrazioekin zein txikiagoekin. Urdin kolorea nagusi da, baita izenburuan bertan, hitzak bata bestearengandik bereizi nahian-edo.

Nortasun literario handiko Mariasun Landa idazlearen eskutik inoiz ez zaizkigu gauzak esplizituki kontatuko, sekula ez istorio hutsalak aurkeztatuko. "Maitagarria eta desioa" liburuan, bai istorioan baita marrazkietan ere, ñabardura berriak topatuko ditugu irakurraldi bakoitzean.